

PETER

Pedro De Miguel. Idazle,
irakasle, zutabe egile,
perretxiko zale... eta lagunen
lagun. Opus Deiko numerario
izanik, bere bizitza arruntak
erakusten digu egunerokotasun
garrantzia kristau bizitzan.
Duela bi hilabete, minbiziaz
jota hil zen

2007 Aza 7

Lehenbiziko golpean gizon zuhurra
ematen zuen Peterrek; hitz urri edo
beharrezko hitzak besterik ez
erabiltzen zituen horietakoa, behar

bada. Gero konturatzen zinen itxuraz bakarrik zela horrela, izaeraz lotsati baitzen. Itxurazko distantzia horren atzean bere buruarekiko kezka-falta eta besteenganako hurbiltasuna zeuden. Begiradan antzematen zitzaion. Bere nortasun indartsua, espiritu-askatasun handi batekin elkartzen zuen.

Peter asko saiatzen zen ezkutuan igarotzen eta ezeren erdigunea ez izaten. Astuna ez izaten ere ahalegintzen zen. Autorik gidatzen ez zuenez, garraio publikoez baliatzen zen; inoiz ez zuen eskatzen kotxean eramatea edo ekartzea. Eta zeharo beharrezkoa ez baldin bazen, ez zituen onartzen horretarako eskaintzarik.

Kalea zuen gogoko. Gauza arruntekin gozatzen zuen: ematen zuen ez zela 'kirolari', baina kirol gertakariak jarraitzen zituen, besteak beste, haien berri izan eta

besteengana gerturatzeko ere.
Gustura joaten zen perretxiko bila
bere koinatuekin eta ezagunekin.

Bere adiskideen oso adiskide zen.
Aspaldiko lagunak zituen, eta aukera
guztiak aprobetxatzen zituen
mantentzeko. Adibidez, azkeneko
urteetan bazkaltzeko gelditzen zen
beste hiri batean bizi izateagatik
aspalditik ikusi gabe zeuzkanekin.

Egunero, goizean goizik, oso hizkera
erraz eta samurra erabiliz, bere
blogean idazten zuen. . Izan ere,
egunero irakurtzen zutenen
iradokizun asko jasotzen zituen.
Berak ere umorezko ateraldiekin
edertzen zituen besteren blogak.

Gasteiztarra izan arren, Bilborekin
zegoen maiteminduta: hiriarekin,
Athleticekin eta askotan bisitatzen
zuen Begoñako Andra Mariarekin.

Bere bizitzan zehar gaixo-bisita asko
egina zen, une on eta txarretan

lagunduz. Laguntza honen
garrantziaz jabeturik denbora
ematen zuen beraiekin. Berari
egokitu zitzaionean, isilean igaro
zuen, zarata atera gabe, gehiago
ezinik utzi gintuen arte.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/peter/](https://opusdei.org/eu-es/article/peter/) (2025 Api 20)